

## ESANAK

**JOSE MARIA AZNAR**

(Espainiako Gobernuako presidentea)

«Bizitzarekin, askatasunarekin eta elkarbizitzarekin jolasean dabil»

**JAVIER ARENAS**

(Espainiako Herri Administrazioetako ministroa)

«Gobernuak soseguz baina sendo erantzungo dio, herri galdeketa bere kasa deitzen badu»

**JAIME MAYOR OREJA**

(EAEko PPko legebiltzarkidea)

«Ibarretxeren proposamena bigarren Lizarra baino gehiago, Lizarrako ituna bera da»

**FEDERICO TRILLO**

(Espainiako Defentsa ministroa)

«Ez dugu onartuko legearen aurkako neurririk, ezta Espainia eta Euskadi zatitzea ere»

**ENRIQUE VILLAR**

(Gobernuako ordezkaria EAEn)

«Ibarretxe esker txarrekoa da Espainiatik alde egin nahi duelako Estatuari kontsulta egin gabe»

**JOSU JON IMAZ**

(Eusko Jaurlaritzako bozeramailea)

«Aznarrek Ibarretxe bera eta zazpiehun mila euskaldun iraindu ditu»

**FELIX TABERNA**

(IUN-NEBeko koordinatzailea)

«Nazionalisten eta ez-nazionalisten arteko harremanetarako esparruak bilatu behar dira»

sartzea, baina nolahi ere egunotan aztertu egin beharko dugu zer jarrera hartu.

PSOEk ez du oraindik bere jarrera agertu gai honekiko, baina PSE-EEK atzo, Patxi Lopez idazkari nagusiaren hitzetan, ez zuen baztertu Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren deiarri ezetz esateko aukera.

# Ibarretxe Sozialista Abertzaleekin ere bilduko dela baieztatu du Imazek

Itun politiko berriak egungo esparrua errespetatuko duela dio Jaurlaritzako eledunak

Eduarne Begiristain | GASTEIZ

Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakariak Arabako, Bizkaiako eta Gipuzkoako Sozialista Abertzaleak taldea ere gonbidatuko du Ajuria Enean egingo dituen bileretara, atzo Josu Jon Imaz Jaurlaritzako bozeramaileak baieztatu zuenez. Imazen ustez, alderdiekin hasiko dituen hartu-emanetan Sozialista Abertzaleak taldea egotea «ez da berria», Ibarretxeren kargu-hartzearen ostean eta aurrekontuen negoziatzearen ostean ere Batasunarekin bildu baitzen. Gainera, gogoratu zuen lehendakariak ostiraleko osoko bilkuran argi utzi zuela Eusko Legebiltzarreko alderdi eta sentsibilitate politiko guztiekin bilduko zela, itun politikoaren inguruko iritziak eta ekarpenak biltzeko asmoz.

Aitzitik, Jaurlaritzako bozeramaileak azaldu zuenez, Ibarretxek hauteskunde programan jarritako bi konpromisoak mantentzen ditu oraindik: batetik, «ordezkari politiko eta sozialekin hitz egitea», baina era berean, «ETAren indarkeria gaitzesten ez dutenekin eta bide demokratikoak erabiltzen ez dituztenekin akordio-rik ez erdieste».

## Egitasmoak egungo esparru juridikoa errespetatzen du

Bestalde, itun politiko berriaren inguruko ekarpenak jasotzeko gizarte eragile eta alderdi politikoekin hasiko dituen bilera horiek «lehenbailehen» izango direla jakinarazi zuen Imazek. Izan ere, enpresaburu, sindikatu eta gizarte arloko pertsonen zein ordezkari poli-



DAVID AGUILAR / EFE  
Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramailea, atzo.

tikoen zerrenda prest du jada lehendakariak.

Lehendakariaren proposamenak jasotako kritikei ihardetsi zien Jaurlaritzako bozeramaileak. Jose Maria Aznar Espainiako gobernuako presidentea «Ibarretxe bera eta zazpiehun mila euskaldun iraindu» dituela salatu zuen.

Ildo horretan azpimarratu zuen lehendakariaren ekime-  
nak «legea eta indarrean da-

goen esparrua errespetatzen» dituela, eta etorkizunari begira Espainia eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko «harreman egonkorra» lortzea duela helburu. Ibarretxeren proposamenaren aurrean Aznarrek «frentismo politiko» baino ez duela erabiltzen salatu zuen. «Hortik aurrera zein da Aznarrek egiten duen ekarpena? Zein da bere irtenbidea?», galdetu zuen. Elkar-

bizitza politikoa lortzeko jarrerara «zentsudunagoak» behar direla iritzi zion, eta Ramon Jauregi PSOEko diputatuak egindako kritikak adibide moduan jarri zituen.

## Eskumenen inguruko afera

Ramon Rabanera Arabako ahaldu nagusiak egindako kritikak ere hizpide izan zituen Jaurlaritzako bozeramaileak. Izan ere, Rabanerak atzo goizean lehendakariari ohartarazi zion eskualdatu gabeko eskuduntzen gastua Kupotik kentzeko erabakia hartuko balu, Arabak Espainiako gobernuari emango liokeela egun Jaurlaritzari ordaintzen dion diru ekarpena. Horretaz gainera, Ibarretxeren ekime-  
nak gizarte eta lurraldea «zaitu» egiten duela iritzi zion.

«Ibarretxek proposatutakoa ongi irakurtzeko eskatuko nioke Rabanerari», erantzun zion Imazek. Azaldu zuenez, Jaurlaritzak Ertzaintzaren handitzearen kasuan bakarrik kenduko du Kupotik Espainiari ordaindu beharreko diru kopurua. Gainontzeko eskumenak ez transferitzeak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hiritarrentzat dituen ondorio ekonomikoak aurrekontuen eranskin batean azaldu baino ez direla egingo argitu zuen Imazek. «Euskaldunok birritan ordaintzen duguna zehaztu baino ez dugu egingo», adierazi zuen.

Imazek azpimarratu zuen Ibarretxeren proposamenak «egonkortasuna» ekarriko duela, eta «haustura eta zatiketa» helburu duten mezuak alboratzea eskatu zuen.

## LABek «argitasun batzuk eta iluntasun asko» ikusten dizkio Ibarretxeren egitasmoari

Erredakzioa | BILBO

Juan Jose Ibarretxeren proposamenari buruzko iritzia «barne hausnarketa» egin ondoren jakinaraziko duela adierazi zuen Rafa Diez LABeko koordinatzaile nagusiak atzo Bilbon.

Dena den, proposamenari «argitasun batzuk eta ilunta-

sun asko» ikusten dizkiotela aurreratu zuen Diezek. Ibarretxeren egitasmoan Euskal Herriaren ezagutza eta autodeterminazio eskubidea kontzeptuak agertzea nolabait «ezker abertzalearen garaipena» dela esan zuen Diezek, baina proposamenarekin «ezker abertzalearen neutralizazioa» bilatzen ote duen kezka agertu zuen.

Gainera, «Euskal Herriaren eskubideen aldeko manifestazioa debekatu berri duenean, Ibarretxek gauzak horrela ulertzen baditu iruzur berri batean aurrean gaudela deritzoguz», zehaztu zuen.

## Nafarren erabakitze ahalmena onartzen dela esan dio Tabernak UPNri

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Juan Jose Ibarretxeren proposamenak nafarren borondatea errespetatzen duela esan du Felix Taberna IUN-NEBeko koordinatzaileak. Miguel Sanz Nafarroako presidenteari proposamena «ongi irakurtzeko» iradoki dio.

Proposamenak Nafarroako

Parlamentuak UPN, PSN, CDN eta IUN-NEBren sostenguekin onartu idatzia hitzez hitz bildu duela esan du. Tabernaren irudiko proposamena bake garaian, eta nazionalisten eta ez nazionalisten arteko harremanetarako esparruak bilatuz egin behar da.

Ezker Batuko kideak UPN-PPri «terrorismoaren aurka zegoen demokraten arteko batasuna haustea» leporatu dio. «UPN-PP ez du aniztasuna errespetatu. Ez dugu zertan irentsi behar euren pentsamendu bakarra, batasun demokratikoa aniztasunetik egin behar da», esan du.